

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko ekainaren bian, arratsaldeko zazpiak direnean, Ohiko Bilkura egitearren Irurtzongo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Xabier Unanua Goicoechea
Jose Peinado Cuesta
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu diren 2009ko maiatzaren 5ean eta 2009ko maiatzaren 11n egindako Bilkuren Aktei zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien galdetu du. Jarraian azaldutakoaz gain, beste oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

Murugarren jaunak esan du ez bera, ezta Arruabarrena andrea ere, ez zirela 2009ko maiatzaren 11ko bileran izan, eta ez zutela ezin etorria adierazi, agendan izandako akats batengatik

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2009ko maiatzaren 5az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

EUSKARA ERABILTZEKO ETA SUSTATZEKO ORDENANTZA HASIERA BATEAN ONARTZEA

Irurtzun udalerrian euskara erabiltzeko eta sustatzeko ordenantza arautzaileari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta euskara Batzordeak 2009ko ekainaren 1ean egindako bilkuran onartutako

proposamenarekin, ondoren adierazitakoa onartu da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas, Unanua eta Murugarren jaunen, eta Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko botoarekin. Kontra bozkatu dute De la Calle eta Peinado jaunek eta Uterga andreak.

1.- Irurtzun udalerrian euskara erabiltzeko eta sustatzeko ordenantza arautzailea hasiera batean onartzea.

2.- Aipatu ordenantza jendaurrean edukitzea hogeita hamar egun baliodunetan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean hasiera batean onartu dela argitara ematen denetik kontatzen hasita, espedientea aztertu ahal izateko eta egoki ikusten diren erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egiteko.

ARTE ESZENIKOEN HITZARMENA ONARTZEA

Nafarroako Antzokien Sarera atxikitzeko, Kultura eta turismo Departamentuaren -Vianako Printzea Erakundea- eta Irurtzungo Udalaren arteko atxikimendu-hitzarmenari buruzko espedientea aztertuta, eta, Kultura Batzordeak 2009ko maiatzaren 28an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, honako hau erabaki da aho batez:

"1.- Nafarroako Antzokien Sarera atxikitzeko, Kultura eta turismo Departamentuaren -Vianako Printzea Erakundea- eta Irurtzungo Udalaren arteko atxikimendu-hitzarmena onartzea.

2.- Kultura eta Turismo Departamentuak -Vianako Printzea Erakundea- eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak 2009ko martxoaren 23an sinatutako lankidetzaren hitzarmeneko 1. eranskina, a) eta b) ataletan gune eszenikoek bete beharreko baldintzak jasotzen dituen, alda dezatela, edo egokitu dezatela eskatzea, Irurtzungo Udaleko Kultur Etxeko gune eszenikoak bete ditzakeen beste batzuegatik, Nafarroako Antzokien Sarera atxiki ahal izateko."

Erabakia hartuta, Murugarren jaunak hitza hartu, eta esan du Irurtzungo gune eszenikoak dituen ezaugarriak onartzea soilik Nafarroako Gobernuaren borondatearen esku dagoela, eta honek, anitzetan, ezarri dituela salbuespenak bere baldintzetan.

HAUTETSIEN ORDAINSARIA

Udalburuaren dedikazio partzialari eta udalkideek bileretan izanen duten hartzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Ogasun, Industria eta Langileak Batzordeak 2009ko maiatzaren 28an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Alkatetza-kargurako dedikazio partziala ezartzea presidentziarako eginkizunak betetze aldera. Dedikazioa 900 ordukoa izanen da urteko, eta asteen 20 ordu emanen ditu urteko lanegunetan banatuta. Ordutegia karguaren premietara egokituko da.
Kontzeptu horretarako, urteko 11.514,29 euro bideratuko dira.
Udalak bere gain hartuko du kopuru horri dagokion enpresa-kuota.

2.- Erabateko dedikazioa nahiz dedikazio partziala ez duten zinegotziek taldeko organoetako bileretan parte hartzeagatik honako erregimena ezartzea; betiere, hilean 99 euroko mugarekin:
- Oso bilkuran parte hartzeagatik: 64 euro.
- Informazio-batzordeetan parte hartzeagatik: 35 euro.

3.- Arestian aipatutako kopuru horiek guztiak urtero berraztertzea urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aitzina kontuan hartuta. Aipatu kopurua, azterketa egiten den aurreko urteko Nafarroako Foru Erkidegoko kontsumorako prezioen indizera egokituko da.

4.- Akordio honen ondorioak 2009ko urtarrilaren 1era eramatea.

ITURRASKARRI PROIEKTUARI BURUZKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN PROPOSAMENA

Iturraskarri proiektua dela-eta, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak aurrekontuen eta egin beharreko aldaketen inguruan egindako oharrei buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, Ogasun, Industria eta Langileak Batzordeak 2009ko maiatzaren 28an egindako bileran onartutako proposamenarekin, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Proiekturako aurkeztutako aurrekontua, eta toki-entitate honi dagokion zenbatekoa onartzea.

2.- Proposatutako aldaketak onartzea.

3.- Udalak Nafarroako Kutxan "Zuk aukeratu, zuk erabaki" proiektuaren bitartez sortutako mozkinen % 33,33 Iturraskarri proiektura bideratzea; kopuru hori % 100ekoa izan daiteke, toki-entitateak urte honetarako egoki baderitzo.

Erabakia hartu aitzin, Viñas jaunak esan du Iturraskarri proiektuaren aurrekontua aldatu behar izan dela, hainbat gertakarik horretara behartuta; besteak beste, neguan denbora luzez pairatutako euri-jasek eta elurteek, Nafarroako Gobernuak gizarte-enplegu babesturako diru-laguntzak % 30 murriztu izanak, eta Nafarroako Kutxaren "Zuk aukeratu, zuk erabaki" programan lortutako diru-sarrera urriak.

URDIAIN PLATAFORMAREN MOZIOA MAKRO-PROIEKTUAREN KONTRA

Ondoko mozioa irakurri da. Eguneko aztergaietan sartzea proposatu zuen Ogasun, Industria eta Langileak Batzordeak 2009ko maiatzaren 28an egindako bilkuran.

"Urdiain - Altsasuko Udalez gaindiko Plan Sektoriala (UPS) –eskualde mailakoa, dela eta, udal honi puntu bakarreko mozioa igorri diogu eztabaidatu eta onar dezan.

Arrazoi hauek tarteko:

- Sakanako herritar guztiek eskualdeko industrialde honi buruzko informazio zehatza eta kontrastatua jasotzeko aukera izan dezaten.
- Sakanako herri guztiek lurraldea antolatzeke aukera guztiak aztertzeke eta horiei buruz eztabaidatzeko aukera izan dezagun.
- Eta, hortaz, guztion artean arduraz erabaki ahal izan dezagun.

Udal honek luzamendua eskatzen dio Nafarroako Gobernuari aipatu proiektua gauzatzeko epea gibelatu dezan."

Mozioa bozkatuta, onartu egin da. Aldeko bozka eman dute Murugarren jaunak eta Arruabarrena andreak. Aurkakoa, berriz, Iriarte jaunak, eta abstentziora jo dute Goicoechea, Recalde, Viñas, Unanua, Peinado eta De la Calle jaunek, eta Ongay eta Uterga andreek.

Bozkatu aurreko eztabaida luzean Iriarte eta Murugarren jaunek hartu dute parte.

Iriarte jaunaren esku-hartzea honako ardatz hauek izan ditu, besteak beste:

- Industrialde hau eta beste batzuk sortzeko emandako urratsen azalpen kronologikoa egitea. Urrats horiek 1991n hasi, eta hainbat fase izan ditu 1997an, 2001ean eta 2005ean, gaur egunera arte.
- Azpimarratu du, denbora honetan guztian, ez garela gai izan, ez Udala ezta Mankomunitatea ere, eskualde mailan industria-lurzorua sortzeko proposamena egiteko.
- Denboran zehar, Altsasuko eta Urdiaingo Udalek proiektu honen inguruan izan duten jarrera eta hartutako akordioak aipatu ditu.
- Gaur egungo proiektua berriro dimentsionatzearen eta berriro orientatzearen alde azaldu da.
- Luzamenduaren aurka azaldu da arrazoi hauengatik: aukera bat da Nafarroako Gobernuak Sakanan inberti dezan, arlo horretan zonaldea erabat ahaztua baitu; eta ezinbestekoa da kalitateko lurzorua edukitzea gaur egun pairatzen dugun krisia gainditzeko dugunerako.

Murugarren jauna, bestalde, luzamendua eskatzearen aldekoa da, Sakanaren beste muturrerako proiektatutako makro-industrialdeak (ia 1.000.000 metro koadro izanen dituen) industria gune horretan kokatzea ekarri du, eta horrek negatiboki eraginen dio Irurtzuni, zuzenean. Bere iritziz, hobe litzateke Sakanan zehar hainbat industrialde (neurritz proportzionalak) sortzea.

USTELKERIAREN AURKAKO MOZIOA

Murugarren jaunak Arruabarrena andreak eta berak aurkeztutako ondoko mozioa irakurri du. Eguneko aztergaietan sartzea proposatu zuen Ogasun, Industria eta Langileak Batzordeak 2009ko maiatzaren 28an egindako bilkuran. Testua honako hau da:

"Instituzioen eta berauek osatzen dituzten pertsonen erantzukizun nagusietako bat dirua eta ondasun publikoak kudeatzea da. Diru eta ondasun horiek zergetatik, tasetatik eta prezio publikoetatik datoz, eta herritarrek ordaindutakoak dira, eta herri-administrazioek herritarren eskubideak eta horiei zuzendutako zerbitzuak bermatzeko erabili beharko lirateke.

Hala ere, Nafarroan, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoak eta horren egitura juridiko - instituzionalak helegite publikoak errazten ditu, eta horiek zenbait lobbyk negozioa egin eta aberasteko erabiltzen dira; lobby horiek, berriz, beren kontaktuak eta lehentasun politikoak areagotu egiten dituzte "esker onak" erakutsiz bai norbanakoei zein alderdi politikoei. Horren lekuko ditugu Urralburu, Otano eta beste hainbaten azpilanak, alderdi bateko eta besteko kide

diren eraikuntza-enpresei egindako azpiegitura handien esleipenen banaketa, edo Gendulaingo hainbat eraikuntza-enpresari oparitu asmo zaien 90 milioi euro (15.000 milioi pezeta).

Bestalde, diru publikoaren kontrol nahikorik ez izateak, politika-dinamika ustelak eta berau sostengatzen duen sistemak Cintruenigon gertatutakoa ahalbidetzen dute.

Baina egoera eta eskandalu zehatzez haratago, Nafarroan boterean dagoen klase politikoak uste du ondasun publikoak herritarren zerbitzura beharrean beren zerbitzura daudela, UPN-PSNk, enpresa- eta ekonomia-lobbyek; Opus Deik, UGT eta CCOO sindikatuek eta Diario de Navarra egunkariak, besteak beste, osatzen duten bunkerrean ordezkatura dauden interes ekonomiko eta politikoen zerbitzura, hain zuzen ere. Horiek osatzen dute, gainera, Nafarroan Espainiako konstituzioa eta Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoa blindatzeko, eta Nafarroan benetako eta premiazko aldaketa egotea eragozteko trintxera osatzen dutenak.

Hori guztia, gaur egungo estatus politikoari ateratzen dioten etekinetik sostengatzen dute. Privatizazioak osasunean, hezkuntzan..., herri-lanak esleitzea, zerga-politika, azpiegituren politika..., zenbait hedabideri emandako diru-laguntzak, beste batzuk deuseztatzea..., milioi askoko prestakuntza-hitzarmenak UGT eta CCOOrekin..., eta egoera hau salatu eta Nafarroan aldaketa demokratikoaren alde egin dutenei errepresioa eta eraso.

Sistemaren beraren ustelkeria politiko eta ustelkeria ekonomikoa uztarturik daude Nafarroan, eta bat bestea ahalbidetzeko erabiltzen da, eta alderantziz.

Nafarroan ezarrita dagoen ustelkeriaren aurka borrokatzeko, ezinbestekoa da neurri praktikoak eta zehatzak hartzea, gardentasuna areagotzea, eta herritarren fiskalizazioa ahalbidetzea.

Horregatik guztiarengatik, Udal honek ondoren aipatzen diren akordioak eta konpromisoak hartzen ditu, eta, horrez gain, Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari gauza bera egitea, eta horiek betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea eskatzen die:

- 1.- Hautetsien diru-sarrerak publikoak izanen dira, beren jarduera publikoak sortuak, edozein direla ere. Nafarroako Parlamentuko eta toki-entitateetako erregistroak publikoak izanen dira, horiei buruzko argibideak eskatzen dituen edonorentzat zabalik.

- 2.- Ustelkeria nahiz diru publikoak bidegabe erabiltzeagatik prozeduraren bat edo ikerketaren bat zabaldua duten pertsonak beren karguetatik kanpo utziko dira, kautelaz bada ere.

3.- Baliabide publikoak erabilera pribatuetarako erabiltzea, edo horiez abusatzea, nahiz eta xede publikoetarako izan, erantzukizunak eskatzea eta halakorik egin dutenen dimisioa ekarriko du.

4.- Zerbitzu eta instalazio publikoen zuzeneko kudeaketa izanen da entitate publikoen printzipio orokorra, eta diru eta instalazio publikoak entitate pribatuak eta norbanakoak aberasteko erabiltzea saihestuko da.

5.- Enpresa publikoei dagokienez, kudeaketaren gardentasun hobea ekarriko duten jarduera-printzipioak ezarriko dira: horrenbestez, kontratazio publikoari buruzko legeria ezarri beharko da derrigorrez beti, eta, halaber, zuzendariak kontratatzeke, publikotasun-, lehia aske eta berdintasun-printzipioak ezarriko dira. Kontratazio horiek kutunkeria-tresna bihurtzea saihestuko da. Era berean, horien kudeaketa eta egitura egokia kontrolatuko da, eta zuzendaritza-egiturak ordainsari altua izanen duten nahierara aukeratutako postuekin gizentzea saihestuko da; horiek izan ez daitezten diru publikoaren bitartez, mesede eta interes politiko eta ekonomikoak ordaintzeko bidea, gaur egun gertatzen den bezala.

6.- Obrak egin eta zerbitzuak emateko, enpresak kontratatzerakoan, lehiaketa publikoa erabiliko da. Baldintza-agiriak, eskaintzak jasotzeko prozedurak eta kontratazio-mahaiak publikoak eta gardenak izanen dira, baita legeak horren gardenak ez diren kontratazioak egiteko bidea ematen duenean ere. Behar bezala bermatuko da kontratazio-mahaikideek esleipen-prozeduran parte ez hartzea horietakoren batekin lehiakideren batekin harremanik txikiena badu.

7.- Edozein estamentu publikok langileak kontratatu behar baditu, oposizio-lehiaketa ezarriko da, eta berme osoa emanen zaie hautaketa-prozesuetan publizitateari, lehia askeari eta tratu-berdintasunari. Halaber, zuzeneko kontratazioak erabat murriztuko dira.

8.- Erakunde bakoitzaren aurrekontuak herritarrek iraunkorki ikusteko moduan egoteko, horien behar bezalako publizitatea egingen da edonork ulertu ahal izateko moduan. Orobat, egingen zaizkion unean uneko aldaketak jasoko dira, eta herritarrei diru publikoko euro bakoitza zertan erabiltzen den jakinaraziko zaie.

9.- Susmorik edo gardentasun eza balego, kontuak fiskalizatzeko Kontuetako Ganberaren esku-hartzea eskatuko da; beharrezkoak diren tresnak gaituko dira herritarrek eta gizarte-eragileek fiskaliza daitekeen organoaren esku-hartzea eskatzeko bidea izan dezaten.

10.- Argi izanda gizartearen premiak estamentu politikoaren erantzukizuna direla, eta horiei dagokiela horretarako bidea ematea, ez da etikoa premia horien gain negozioa egitea; beraz, ezinbestekoa da kudeaketara gardentasuna eramatea.

a. Osasuna eta Gizarte-zerbitzuak.

i. Gaur egun maila batean edo bestean pribatizaziorako dagoen joera hori iraultzea kudeaketa publikorantz.

ii. Entitate pribatuekiko akordioetan: entitate pribatuekin sinatutako lankidetzak eta kudeaketa-akordio guztiak, erregistro batean (horretarako sortua) sartuko dira, eta herritarrei horietara sartzeko bidea emanen zaie.

b. Hezkuntza.

i. Hezkuntza publikoari lehentasuna ematea, bai finantziarioari dagokionez, baita baliabideei dagokienez ere, eta Nafarroako Gobernuarekin ideologikoki elkar hartuta dauden zentro pribatuei orain arte izan duten pribilegioa kentzea.

c. Etxebizitza eta hirigintza politika entitate publikoen eta enpresa pribatuen artean negozioa egiteko eta dirua mugitzeko elementu garrantzitsuenetako bat izan da, eta gaur egun ere halaxe da. Horiek ustelkeria kasu askoren atzean daude, erabaki politikoen eta eraikuntza-enpresen negozioen artean dagoen zuzeneko loturagatik. Hori dela-eta, politika erabat aldatzeaz gain, gai honi dagozkion arloetan araudi, kontrol, fiskalizazio eta gardentasun zorrotza behar da; esate baterako, lurren birkalifikazioan, eraikitze baimenetan, prezioen kontrolean, hirigintza-jarduerak abiarazi aurretiko premien azterketan, herritarren parte-hartzean, eta abarretan.

11.- Akordio honen berri ematea Nafarroako Gobernuari eta herritarrei, ohiko bitartekoak erabiliz."

Mozioa bozkatuta, onartu egin da. Aldeko bozka eman dute Iriarte, Goikoetxea, Rekalde, Viñas, Unanua eta Murugarren jaunek, eta Ongay eta Arruabarrena andreak. Aurkakoa, berriz, De la Calle eta Peinado jaunek, eta Uterga andreak.

Bozkatu aurreko eztabaidan, mozioa aldatu egin da Irurtzun Bai – Nafarroa Bai udal-taldeak hala eskatuta; ezabatu egin da hautetsien diru-sarrerak pribatuen inguruko publizitateaz egiten zen aipamena, beren iritziz ez duelako mozioarekin loturarik.

KULTURA ARLORAKO DIRU LAGUNTZAK

Kultura Batzordeak 2009ko maiatzaren 29an egindako bileran onartutako aldeko proposamenarekin, honako hau erabaki da aho batez: 7.000,00 euroko diru-laguntza ematea Orritz Dantza Taldeari Dantzari Txiki Eguna antolatzeagatik, aurrekontuko 4515.2271101 "Kultura Kontseiluaren ekintzak" partidaren -5.000 euro- eta 121.489 "Irabazi asmorik gabeko entitateentzako diru-laguntzak" partidaren -2.000 euro-kargura.

KIROL ARLOKO DIRU LAGUNTZEI BURUZKO MOZIOA

Iriarte jaunak mozio hau sartu izana justifikatu du Kirol Batzordeak 2009ko maiatzaren 13an egindako bilkuran aztertu zelako, eta oniritzia jasota, osoko bilkura honetako aztergaietan sartu ez zelako.

Mozioaren premiazkotasuna bozkatuta, aho batez onartu da.

Jarraian, oraingoan ere aho batez, honako diru-laguntzak ematea erabaki da:

- 1.- 2009ko aurrekontuko 4523 2270901 kontusailaren kargura:
 - 500,00 euro Iratxo SCDR-ri, botxa-txapelketa antolatzeagatik.
 - 600,00 euro Bar Mabell areto-futbol taldeari, beren jardueretarako.
 - 600,00 euro Itxondo areto-futbol taldeari, beren jardueretarako.
 - 280,00 euro Larrazpi Elkarteari, frontenis-txapelketarako.
- 2.- 2009ko aurrekontuko 4523 48203 kontusailaren kargura:
 - 350,00 euro Pistones motoklubari, beren jardueretarako.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergoa eta Ingurumena.

Iriarte jaunak esan du pasa den maiatzaren 31n Tracsa enpresako teknikariak Plazaola tunelean (Artadia) egon zirela, Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurune Ministerioari tunelaren egoerari eta egin beharreko lanei buruzko informazioa emateko.

GALDE-ESKEAK

Arruabarrena andreak galdetu du ea Udalak deialdirik egin duen Atakondoa ikastetxeko musika-tailerraren inguruan bileraren bat egiteko. Udalburuak erantzun dio deialdia ez duela Udalak egin, udal musika-eskolaren zuzendaritzak baizik. Edonola ere, argi utzi nahi izan du, adostutakoaren arabera, musika-tailer hori emanen da baldin eta eskatutako hizkuntzetan ematen bada; hau da, euskaraz eta gaztelaniaz.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zortziak eta hamabost minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiatzapena egiten dut.